



ITZIAR UGARTEMENDIA

Iñaki Martínez de Luna

SOZIOLOGOA ♦

Euskarak 365 egun

BA OTE DU ZENTZURIK *Euskarak 365 egun* bezalako kanpainen premiez, ARGIAko irakurleak konbentzitzen ahalegintzeak? Ezezkotan nago, irakurle denek izango baitute euskararekiko, gutxienez, nik bezain besteko ardura. Hortaz, ez nator errepikatzen guztiok dakiguna. Probetxugarriagoa izan dakiguke, aldiz, esandako kanpainaren mezuaz gogoetatxo bat piztea.

Euskarak 365 egun kanpainak onura asko ditu lelotik harago. Hasteko, “ikusgarritasuna, euskara” hitza milaka aldiz ikusi ahal izan delako, hormatan itsatsita ekimena Euskal Herriko 32 herritara zabalduko da-eta. Ezin da ahaztu hitzek duten balioa ideiak eta asmoak irudikatzeke, eta hitz bat begi aurrean izatean bere esanahiak garrantzia hartzen duela ikuslearentzat. Ez da gutxienezkoa, hortaz, kanpainaren afixak milaka batzuk izatea, horrek euskara egon badagoela edonon begi-bistan jarri duelako.

Ikusgarritasuna eta hedapena lagungarri zaizkio edozein euskaltzaleri, bere gogoko zaletasunari tinko eutsi diezaion. Baina are gehiago euskaratik lekutan bizi diren herrikideari, halako leloen bitartez ohikoa ez zaion hizkuntza gogoan izan dezan, bederen.

“Kanpora” begira ez ezik, euskalgintzako eragileengan ere aldeko eragina izan du kanpainak, seguru

asko. Hots, aterki beraren pean hogeita hamasei bat euskara elkarte elkar hartuta ibiltzea bada mugimenduen koordinaziorako beste pauso bat gehiago.

Hemendik aurrerako lerrook publizitateko adituek nik baino askoz hobeto idatziko lituzketen arren, ausartuko naiz niretzat labainkorra den eremura sartzen.

ARGIAko irakurlearentzat ezaguna da, gutxi asko, *Euskarak 365 egun* kanpainak zer bilatzen duen: gure hizkuntza egunerokotasunean txertatua izateko beharraz jendea jabetzea. Zalantza daukat, hala ere, mezu kriptikoa, ulertezina, ez ote den herritar askorentzat.

Adibidez, *Euskaraz Bizi nahi dut* kanpainak duen xede-taldea euskaldunena izango da seguruenik, hizkuntza hori uneoro balia dezagun

bultzatu eta horretarako behar diren baldintzak aldarrika ditzagun. Beste maila batean, UEUren *Txiokatu zure tesia 6 mezutan* lehia arrakastatsua, doktore eta doktoregai euskaldunen mundu txikira zuzendua izan da. Nori zuzendu ote zaio *Euskarak 365 egun* leloa? Euskaltzaleez harago ulergarria ote? Euskalgintzaren hesiak gainditzeko gauza? Hori da, hain zuzen, gizarte zabalarentzat mezu bakarra zabaltzeak izan dezakeen arriskua, guztientzat egokia ez izatea. ■



Ezaguna da “Euskarak 365 egun” kanpainak zer bilatzen duen: zalantza daukat, hala ere, mezu kriptikoa, ulertezina, ez ote den herritar askorentzat

DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

Ez dago emakumerik

DUELA hilabete edo, Euskal Herrian fama-tua den musika jaialdi bateko kartela bistaratu nuen. Kartela osatzen zuten hamabi taldeetatik bat bera ere emakumez osatuta ez zegoela ikusita, harritu nintzen. Ez hori bakarrik, talde guztietako partaideak kontuan hartuta, emakume bakarra izango da taula gainean instrumentu bat jotzen.

Asaldatau egin nintzen, gaur egun politikoki zuzen izatearren bada ere, uste nuelako halakoetan “zaintzen” zutela gutxieneko presentzia bat.

Jaso nuen erantzunak ordea gehiago mindu ninduen: “Saiatu gara bati deitzen, baina ez dago emakumezkorik!”.

Eta nik aurrekoan Durangotik bueltan erositako zortzi disko ditut bat-batean parean. Ohartu gabe, euskaraz aritzen diren zortzi emakume buru dituzten zortzi disko ditut. Pentsatu dut, ez inon inor egoteko, ez dela kopuru makala.

Izan ere, duela urte batzuk festa bat osatzeko edo txosnetan emakumeen musika errekopilatzeke, estutasun uneak pasa izan ditugu. Baina ez, gaur ez dut halakorik onartuko, izan ere egon baitaude, asko, askotarikoak, eta onak. Eta horri entzungor egiteak patetismoa urratzen du. ■

